



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 6a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak industriaren arloan gauzatu duen eta gauzatu asmo duen politika orokorrari buruzkoa. Erretiratutako jabeldura (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalen erabiltzeari dagokionez, bete dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarrekin lankidetzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtieran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako erakunde eta eragile politiko guztiak premiatzen dira lagundu dezaten Nafarroako herritarren bake itzaropena bete dadin. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa gaixotasun kronikotzat jo eta Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpean arantza bifidoaren unitatea sor dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).
- Sahararren autodeterminazio erreferenduma, Nazio Batuen Erakundearen babespean, hainbat arinen egitearen aldeko adierazpen politikoa. Osoko Bilkurak berretsia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretartzera ez joan izanaren benetako arrazoari buruzkoa. Erretiratutako galdera (7. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak industriaren arloan gauzatu duen eta gauzatu asmo duen politika orokorrari buruzkoa.

ERRETIRATUTAKO JABELDURA

Legebiltzarrak, 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuak industriaren arloan gauzatu duen eta gauzatu asmo duen politika orokorrari buruz aurkezturiko jabeldura erretiratutzat jotzea.

Jabeldura hori 2007ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologietan ari diren emakumeak prestatzeko programak egin ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeak sektore estrategikoetan egoteko ahaleginean sakon dezan, eta emakumeek lidergoa eskuratu ahal izateko eta horretarako gaitzeko generoko zeharkakotasuna eta ardurakidetzat sar ditzan gaur egungo ohituren artean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioaren gizartean berdintasuna lortzeko ekintza programa bat sar dezan aukera berdintasunerako planaren barruan.

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalean erabiltzeari dagokionez, bete dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko martxoaren 1ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalean erabiltzeari dagokionez, bete dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da errege dekretuan ezarritakoa, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak nortasun agiri nazionalean erabiltzeari dagokionez, bete dezan

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du ahalik eta lasterren bete dezan Nafarroako Foru Komunitatean, abenduaren 23ko 1553/2005 Errege Dekretuaren 11.3 artikuluan xedatutakoa, nortasun agiria Nafarroako bi hizkuntzetan emateari dagokionez.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan".

Legebiltzarrak 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarteekin lankidetzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarteekin lankidetzan."

Legebiltzarrak 2007ko martxoaren 1ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko."

Legebiltzarrak 2007ko martxoaren 1ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako erakunde eta eragile politiko guztiak premiatzen dira lagundu dezaten Nafarroako herritarren bake itzaropena bete dadin.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua eta Nafarroako erakunde eta eragile politiko guztiak premiatzen dira lagundu dezaten Nafarroako herritarren bake itzaropena bete dadin."

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa gaixotasun kronikotzat jo eta Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpean arantza bifidoaren unitatea sor dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da arantza bifidoa gaixotasun kronikotzat jo eta Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpean arantza bifidoaren unitatea sor dezan."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2007ko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Askotarikoa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo anbulatorioentzako osasun produktuez hornitzeko eta banatzeko lehiaketa publikoetan ezar dezan beharrezkoa izatea banaketa Nafarroako Foru Komunitatean dauden farmazia bulego guztietara egitea."

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2007ko otsailaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko otsailaren 2ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Sahararren autodeterminazio erreferenduma, Nazio Batuen Erakundearen babespean, hainbat arinen egitearen aldeko adierazpen politikoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Sahararren autodeterminazio erreferenduma, Nazio Batuen Erakundearen babespean, hainbat arinen egitearen aldeko adierazpen politikoa berrestea.

Erabaki hau argitaratzen da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 112.1. artikuluko eza-eritakoarekin bat.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

**Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an
bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretaratzera ez joan
izanaren benetako arrazoari buruzkoa.**

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Legebiltzarrak, 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Nafarroako Gobernuko lehendakaria 2007ko urtarrilaren 13an bakearen aldeko eta indarkeriaren aurkako elkarretaratzera ez joan izanaren benetako arrazoari

buruz aurkezturiko galdera erretiratutzat jotzea. Galdera hori 2007ko otsailaren 2ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2007ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro, Socialistas del Parlamento Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Nafarroako Demokratikoen Elkargu-

nea, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek aurkeztu eta 2007ko otsailaren 23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
---	--